

...eta

Kitto!

942 zkio.
2015-IX-18



Lambretta: historia bizia

2015eko bildumak
marka guztietan



2. betaurrekoak
DOAN

erreflexuen aurkako
GRADUATUTAKO
zurre m6-ak erosita

77€

Bidebarrieta, 2
Tel.: 943 20 05 22
EIBAR

MULTIÓPTICAS
lehen zerbitzu optikoetan



LANTALDE PROFESIONAL BIKAINA IZEN-ABIZENEKIN



ZERBITZU INTEGRAL AKREDITATUA

ETENGABEKO ORDUTEGIA



Doctor **Antonio Murillo**

Hezur Birsorkuntza eta ehun bigunen Maneiuko Zuzendaria. **Lleidako Unibertsitatea eta Madril.**

Periodontzia Koordinatzailea, Odontologian Lizentziatua. **Alfontso X.a Unibertsitatea. Madril.**

Implantologia Masterreko Irakaslea. **Lleidako Unibertsitatea.**

Kirurgia Masterreko Irakaslea. **Salamancako Unibertsitatea.**

Unibertsitate Instituzioetako Irakasle gonbidatua.

Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean eta Bartzelona, Sevilla, Almeria, Lleida, Leon, Malaga... Unibertsitateetan.

Doctora **Ainhoa Zulueta**

Odontologian Lizentziatua. **Euskal Herriko Unibertsitatea. Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian, Periodontzian, Implantologian. Leongo Unibertsitatea.**

Diplomatua Aho Kirurgian. **Bartzelonako Unibertsitatea.**

Hortz-Estetikan Diplomatua.

Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.

Hortz-Estetikan Diplomatua.

Autran Institutoa, Bartzelona.

Etengabeko Formakuntza. New York-eko Unibertsitatea.

Oklusioan Graduondoa.

Anibal Alonso Doktorea.



Astelehenetik ostiralera:

8:00etatik 22:00etara

Zapatuetan:

10:00etatik 14:00 etara

Eibarko Dendarien Elkarte
ABANTAILA HANDIAK ELKARTEAREN TXARTELAREKIN ORDAINDUZ
Galdetuiguazu!



MUTUAK ETA ASEGUURAK

GLOBAL CARD, OCASO, EMESA PREVENCIÓN, CARREFOUR LIFE, AZKARAN, FRATERNIDAD, IMQ, SANTA LUCÍA, PREVISORA BILBAINA, AEGON/STONEBRIDGE, AVANTSALUD, PADI...

Galdetuiguazu!



IRAZABAL

clínica dental

FINANTZIAZIO BEREZIA

Abantaila ekonomiko handiak eta finantziario aukera ezinhobeak. **GALDETU**

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR - Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

ASTEAN ESANAK

"Tentuz jokatu behar dute Sky taldekoek, haien txirindulariek 'pisua galdu eta hegan egiten dut' diotenean; ume anorexiko belaualdia sortzen ari dira"

(PURITO RODRIGUEZ,
TXIRINDULARIA)

"Urtero badira Hondarribian neska panpinak, sumindura beltzez mozorrotuak eta parekidetasunari bizkarra ematen. Gutarik inor ez da alienaziotik salbuetsita, eta badira beren zapalkuntza gorestea hautatzen dutenak"

(ANUNTXI ARANA,
ANTROPOLOGOA)

"Jende gehienak euskararako aldaketa egingo du ez kontzientziagatik, baizik eta daukaten giro sozialera egokitu beharko dutelako. Oso latza da norbanakoari gizarte araua urra dezan eskatzea eta erantzukizuna bere bizkar gainean eramatea"

(PELLO JAUREGI,
EHUKO IRAKASLEA)

"Lehen, atzerritar mafien gorakadarekin batera, delinkuentzia eta kriminaltasun arriskuak ikusten ziren tokian orain askoren gizakiaz gaindiko bizirauteko ahalegina besterik ez dugu nabaritzen. Hala ere, hondatzearengatik jarraituek basapizti iheskor gisa izango dira tratatuak, nahiz eta gizakizat hartuak izan"

(JAVIER SABADELL,
FILOSOFOA)

"Txinak esportatzen ez duena Europar Batasuna ari da esportatzen, eta euroaren devaluazioak ere lagundu du. Alde ona ere izan dezake Txinaren krisiak, gure lehiakide batek arazoak dituelako"

(JOSE GARCIA MONTALVOL,
EKONOMIA KATEDRADUNA)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

KONTUAK HARTU.- Kontuak eskatu. "Juan zan hasarre emaztiagana, kontuak hartzera".

KONTUAN HARTU/IZAN.- Gogoratu. "Gaurko denporak kontuan izanda".

KONTUAN JAUSI.- Konturatu. "Politxo-politxo jua ziran kontuan jausten eibartarrak buztanik ez eukela".

eskutitzak

EIBARKO UDALBATZARI

Eibarko EAJ-PNV udal taldeak honako mozio hau aurkezten du Bilkuran eztabaidatu eta bozkatu dadin, Arraten eibartar baten aurka agertutako paskinak direla-eta.

Iragan irailaren 7an eta 8an Arrateko hainbat gutnetan kartelak eta pegatinak hedatu ziren, Adegin lan egiten duen Eibarko pertsona bat irainduz eta bere izen-abizenekin batera argazkia ere erakutsiz. Ez da lehen aldia pertsona hau mehatxatu, hertsatu eta publikoki iraintzen dutena bere bizitza pribatuari ez dagozkion gaiak helduz. Izan ere, azken urteotan bere datu pertsonalak jasotzen zizuten paskinen buzoiratzeak zein enkarteladak pairatu ditu. Eibarko Udalak, eibartarregandik gertuen dagoen erakunde publiko gisa, ezin du beste alde batera begiratu horrelako ekintza justifikaezinen aurrean. Horregatik guztiagatik, Eibarko EAJ-PNV udal taldeak honako mozio hau aurkezten du:

1. Eibarko Udalak bere elkartasuna adierazten dio kaltetutako pertsonari, bere senideei eta gertukoenei, azken Arrateko jaietan bere izen-dei-

tura eta argazkiz hornituta banatutako paskinak direla-eta.

2. Eibarko Udalak baztertu egiten du arazo sozial, politiko edo lanekoak baliatuz egindako edozein ekintza baldin eta berau saiatzeko baldin bada pertsonak uzkuratzen, bortxatzen edo beldurtzen. Indar osoz gaitzesten du anonimotasunez paskin horiek banatu dituztenen krudelkeria. Horrelako ekintzek inoiz ez zuten lekurik izan behar eta iragana dakarte gogora.

3. Eibarko Udalak ekintzaren arduradunei eskatzen die Eibarko herriko pertsona baten aurkako eraso horiek bertan behera utz ditzatela, demokraziaren aurkako metodo iraingarri horiek atzean utziz.

4. Eibarko Udalak dei egiten die eibartar guztiei horrelako ekintzak salatu ditzaten, Eibarko Hiria osatzen dugun pertsona guztien arteko elkarbizitza ahalbidetze aldera.

JOSU MENDIKUTE RODRIGUEZ (Eibarko EAJ-PNV udal taldeko bozeramaile-ordea)

2016ko Gida Komertziala prestatzen hasi gara.

Hemendik aurrera eta abendura arte, urtero berritzen dugun Gida Komertziala lantzen jardungo dugu ...eta kitto!ko publizistok. Bisitatu eta telefono-deiak egin, datu guztiak bildu, antolatu eta azkenik, diseinu eta maketazio lana; hori izango da gure lan-taldearen arduetako bat hurrengo asteetan. Inoiz ez bazara gida komertzialean azaldu eta zure enpresa, elkarte edo dena delakoa agertu nahi baduzu, jarri zaitez gurekin harremanetan (943 20 67 76 edo publizitatea@etakitto.eus Zure enpresa erakusteko leku aparta da 2016ko GIDA KOMERTZIALA.



Euskara Elkarteak

ARGITARATZAILERA: ...eta kitto! Euskara Elkarteak. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar

TELEFONOAK: 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.

Astekararen E-MAILak: erredakzioa@etakitto.eus / komunikabideak@etakitto.eus / publizitatea@etakitto.eus

Elkartearen E-MAILak: elkarteak@etakitto.eus / normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA: Ana Aizpurua, Itziar Albizu, Jose Luis Gorostegi eta Silbia Hernandez.

ADMINISTRAZIOA: Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILERA:** Ana Aizpurua.

ERREDAKZIO-BURUA: Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA: Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta Maider Aranberri.

PUBLIZITATEA: Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnoa:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIAK:** Patxi Lejardik lagata

BANAKETA-ARDURADUNA: Ainhoa Luz. **TIRADA:** 8.150 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. **ISSN:** 1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik)



EIBARKO
UDALA



Gipuzkoa
BERRIA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta
Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak DIRUZ LAGUNDUTAKO ALDIZKARIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)

5.000 bat ikasle herriko eskoletan

Hasi barri dan ikasturtian, 3.856 ikasle dagoz matrikulauta Derrigorrezko Hezkuntzan eta beste 1.212 Unibertsitatera arteko bestelako maillatan: 476k Batxillergua dihardue egitten (306 sare publikuan eta 170 pribauan) eta gehixago dira Lanbide Hezkuntza egitten dabena (736 dira, 259 erdiko maillan diharduenak eta 477 goi maillan). Gaztetxuenetatik hasitta, 144 ume dagoz matrikulauta Haur Eskolan (49 Orbean, 25 Laztanton, 20 Pintxon, 18 Aldatzen eta 16na Amañan eta Urkin), 1.088 Haur Hezkuntzan (288 Ikastolan -173 Sansaburur eta 115 Argatxan-, 201 La Salle Isasin, 197 San Andresen, 120 Urkizun, 106 Aldatzen,

91 Urkin eta 85 Amañan), 1.590 Lehen Hezkuntzan (452 Ikastolan, 303 La Salle Isasin, 289 San Andresen, 160 Urkizun, 158 Aldatzen, 115 Amañan eta 113 Urkin) eta 1.034 ikasle dagoz Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (305 Itzian, 279 Ikastolan, 242 La Salle Isasin eta 208 Aldatzen). Osotasunian hartuta, 5.068 ikasle guzti hórretatik, 3.573 ikasle dira sare publikuan diharduenak, hau da, %70gitxi gorabehera. Eta, hizkuntzeri dagokienez, ia 4.000 ikasle dira D ereduan diharduenak (hau da, ia %80) eta beste %20xa holan banatzen da: %13k A ereduan ikasten dau (Batxillergua eta LH) eta %7k B eredu mistuan.



Gehienek D ereduan ikasten dute. ARTXIBOA



Uztaillian lagundu eban eguraldixak batez be. ARTXIBOA

Iñoiz baiño jende gehixago igerilekuan

Ia 45.000 lagunek erabilli dittue kanpoko igerilekuak aurreko asteburuan amaitsu zan denboraldixan: zihetz esateko, 44.485k, Eibarko Kirol Patronatetik aditzera emon dabenez. Kopuru horren arabera, egunian batzbeste 470 lagun hartu dittue Ipuruako instalaziñuak. Felipe Zamakola Patronatoko zuzendarixak argi laga deskueenez, aurtengo udan egin dabena eguraldi onak eragin dau oin arteko marka guztiak haustia: "2011n, instalaziñuak haunditu eta gero, oin dala urte bi - 2013an- 44.300 lagun izatera aillegau giñan. Eta aurtan, gitxigatik izan bada

be, kopuru hori gairiditu dogu, batez be uztaillian euki genduan eguraldixari esker. Julixoko erabiltzaille kopuruak iazkua bikoiztu dau. Irailla, ostera, guretako oso eskasa izan da: 13 egunetan 878 erabiltzaille euki dittugu. Iazkuarekin konparatuz gero alde nabarmena dago, 14 egunetan 9.000 erabiltzaille izan genduazena eta. Aurtengo iraila iazkuaren pare ibilliz gero, orduan bai marka!". Bestela, aurreko urtietako erabiltzaille kopuruak hórretatik dira: 2014an, 38.000; 2013an, 44.300; 2012xan, 41.700; 2011n, 28.500; eta 2010ian, 40.700.



Berrehun lagunetik gora bildu ziran aurreko zapatuan Untzagan antolatutako herri-bazkarixan. Musikiaren tartia izan zan gero. LEIRE ITURBE



Giro onian jarraitzen dabe Bien Aparecida jaixak

Eibarko Kantabriako Etxekuak aurreko asteburuan ekin zetsen Bien Aparecida amabirjiñaren omenezko jaixak ospatzeko egitarauari, zapatuan 200 bat lagun Untzagan alkartu zittuan paella-janarekin. Herri-bazkarixaren harira, arratsaldian Eibarko Trikitilari Gaztiak eta Kaleetan Kantuz abesbatzakuak kalejiran ibilli ziran

eta, eguna biribiltzeko, "La Flor y los Romeros" Kantabrietik etorritako folk taldiak Untzagan emanaldixa eskindu eban.

Jaixak asteburu honetan segiduko dau: bixar, Kantabriako Etxiak Jardinieta kalian dakan egoitzan bazkidiendako tute txapelketia jokatu da. Eta domekan, 12.00xetan Molledo-Portolineko Virgen

del Camino abesbatzaren parte-hartzia eukiko dabena mezia egingo da San Andres elizan. Eta 13.00ian, Jardinieta egoitzan bazkide eta lagunendako piskolabisa eskinduko dabe. Aurtengo programia hillaren 26xan agurtuko dabe, Ipuruako bolatokixan jokatu diran igel-toka eta "aizto" txapelketekin.

Gaur abiatuko dira Legarreko jaixak

Arrajolape Kultur Elkarteak antolatutako programiari jarraituta, gaur hasiko dira Legarreko jaixak, 19.30xetako txupinazuarekin. Hortik aurrera trikitalarixak eta buruhandixak la-gundutako kalejiriak, patata-tortilla txapelketiak, auzoko umiendako herri afarixak eta talogintza taillarrak, "Magia apur bat" ikuskizunak eta jai batzordiarekin txosnan ipiñiko daberen musikari girotuko dabe jaixetako lehelengo eguna. Eta bixarko egun osorako programia preparau dabe: Sosola basarrira ibillaldixa, umiendako pelota partidak, kalejiria, pintxo-triki-poteua, bazkari-



Trikitalarixak emongo detse hasiera jaixeri. ARTIBOIA

xa... Jaixak agurtu baiño lehen, gabian erro-merixia eskinduko dabe Xero Xiette taldekuak eta, jarraixan, kontzertua emongo dabe Pam eta Osso taldiak.

Sukaldari fiñak Barrenako jaixetan

Aurreko asteburuan, zapatuan ospatu zittuen Barrena kalekuak jaixak. Urteroko martxan, oin-guan be programia batez be sukaldaritzari eskindutako ekitaldixekin osatu eben eta auzoko



LEIRE ITURBE

jaixetan "klasikuak" diran paella eta patata-tortilla lehiaketak, betiko moduan, parte-hartze zabal-euki eben. Gaiñera, lehiaketarako preparau zittuenak kalia bazkaldu eta afaltzeko primera-ko atxakixa emon zetsen auzokueri eta, holan, edarto emon eben eguna beste behin.

autuan

BILDUREN BATZARRA

Datorren eguaztenerako Espaiñiako hauteskundieei buruzko batzarra deittu dau Bilduk (Portaleko ikastaro gelan, 19.00etan). Hurrengo legegintzaldirako hautagaixak proposatzeko aukeria egongo da.

SAN ANDRESEKUEEN BAZKARIXA

1969ko San Andres eskolako ikasliak bazkarixa antolatu dabe urriaren 10erako. Izena emoteko epia irailaren 30ian itxiko dabe. Antolatzailliekin harremanetan ipintzeko sanandreseibar69@gmail.com helbidera idatzi edo 656723650 telefonora deittu.

KINTOEN BAZKARIXAK

1955xan jaixotakuak urriaren 3an egingo daben bazkarirako izen-emoteko epia hillaren 23ra arte luzatu dabe (80 euro, Kutxabaneko 2095 5035 01 9115113291 kontuan). 1960xan jaixotakuak, barriz, urriaren 17xan egingo dabe (irailaren 30erako 70 euro Kutxabaneko 2095 5035 09 1063886013 kontuan). Eta 1965xan jaixotakuak egingo daben jairako izen-emotia itxitta dago, lagun gehixago hartzeko tokirik ez dago eta.

I R A I L A

	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30				

A B E N D U A

	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

U R R I A

			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	

A Z A R O A

						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30						

Gainera:

- Barixakuero ...eta kitto! astekaria
- Hilero Txikitto! umeen aldizkaria
- Astero Berbetan mintzapraktika taldeak
- Itzulpenak eta diseinu-lanak

www.etakitto.eus



2015eko iraila-abendua

kultur eskaintza

...eta kitto! Euskara Elkarteak

eta
kitto!

Euskara Elkarteak

Urkizu pasealekua 11, solairuarte
20600 Eibar (Gipuzkoa)
Tel: 943 20 09 18
elkartea@etakitto.eus
www.etakitto.eus

asteko %11 datua

hazi da turismua Debabarrenian. Urtarriletik abuztura bittartian 30.185 bisitari hartu dittue Deba eta Mutrikuko Turismo Buleguetan. Estatukuen bisitak %10'2ko igo dira: aurten 9.019 lagun ibilli dira (iaz 8.183). Etorritakuen %26'3 atzerritarrak ziran eta bame turismua %2'5 hazi zan ekaña eta abuztua bitartian.

Kofradixa eguna agurtuta, Arrate izenekuen txandia

Ohituriari jarraituta, Arrate eguna pasau eta hurrengo domekan, aurreko asteburuan ospatu zan Kofradixa eta Basarritar Jubilauen eguna Arraten. Goizetik ekin zetsen programiari, Simon Aldazabal Antxitxiketaldixaren XX. ediziñuarekin. Meza nagusiak bertsolari eta Kezka dantza taldeko ezpata-dantzarien parte-hartzia euki eban eta meza ostian Amabirjiña atzera be prozeziñuan etara eben, Usartza Txistulari Taldiak lagunduta. Eguardixan, jende mordua batu eben paella lehiaketia eta Kantabria jatetxian jubilaue dako antolatzen daben bazkarixak eta, urteroko moduan, arratsaldeko idi-probekin agurtu eben jaixa.

Halanda be, Arratek beste jaialdi bat hartuko dau asteburu honetan, domekan Arrate izene-

Arrate izenekuak jairako prest izango dira barrero be. ARTXIBOA



kuak euren urteroko jaixa ospatuko dabe eta. Azken urtiotan egindakuen bidetik, aurten be goizetik ekingo detse egunari, Arratera Amabirjiñaren pausuen bide zaharretik igotzera animatzen diranak ibilbidia hastiarekin batera. Behin Arraten alkatuta, programia meziak, bazkarixak, jolasak eta dantzaldixak osatuko dabe.

Defibel alkartiaren ikastarua

Defibel Debabarrenako Fibromialgia eta Ahulezia kronikoaren alkartiak "Coaching bizi egoki baterako" izenburuko taillarra antolatu dau. Ana Perez Lizarraga psikoterapeutak emongo daben ikastarua Elgoibarren egingo da, hango Kultura Etxeko hitzaldi gelan eta lehelengo saia irailaren 29xan (martitzena) izango da, 17.00etatik 19.00etara (hiru saio gehixago egingo dira, urriaren 27xan, azaruaren 24an eta abenduaren 22xan). Parte hartu nahi dabenak izena emon biharko dau derrigorrez (plaza mugatuak dira), horretarako 648977587 telefonora deittuta.



IRAILA

Irailak 23, eguaztena:

Berbetan egitasmoaren aurkezpena. 19:00etan Udaleko pleno aretoan.

Irailak 25, barixakua:

Berbetan Jaialdia. Untzaga plazan 17:30-20:00. Tailerrak, puzgarriak eta Irrien Lagunen ikuskizuna.



URRIA

Urriak 3, zapatua:

Sagardo Eguna. Egun osoko jai Untzagan. 13 sagardotegitako sagardoa. 12:00-14:30 eta 19:00-amaitu arte.



Urriak 4, domeka:

Kilometroak-era autobusak (Usurbil). Irteera Toribio Etxebarriatik 09:30etan. Buelta 19:30ean. 10 euro.

Urriaren 5etik azaroaren 2ra arte:

San Andres bertso-paper lehiaketa ko lanak aurkezteko epea.

Urriak 6, martitzena:

Harixa Emoten irakurketa-taldea. Koldo Izagirrerren "Dumitru" liburua. 19:00etan Portalean.

Urriak 14, eguaztena:

Berbalaguntzat txakoli- eta ardo-dastaketa Mikel Garaizabal enologoaren eskutik. 19:00etatik aurrera ...eta kitto!-n.

Urriak 18, domeka:

Nafarroa Oinez-era autobusak (Elizondo). Irteera 08:30ean Ego Gainen, eta buelta 19:00etan. 12 euro.

Urriak 22, eguena:

Gurasoak Berbetan: "Teknologia berrien erabilera osasuntsua eta arrisku gabekoa" hitzaldia. 19:00etan ...eta kitto!-n.

Urriak 27, martitzena:

Basatzerri produktuen dastaketa. 19:00etatik aurrera ...eta kitto!-n.

Urriak 30, barixakua:

Barixakuak jolasian: antzerkia. 17:30etik aurrera ...eta kitto!-n.

AZAROA

Azaroak 3, martitzena:

Ostalariak Berbetan-eko kideentzat koktel-ikastarua.

Azaroak 3, martitzena:

Harixa Emoten irakurketa-taldea. Garazi Kamioren "Orube abandonatuak" liburua. 19:00etan Portalean.

Azaroak 16, astelehena:

Dendariak Berbetan-eko kideentzat opari-pakete bereziak egiteko ikastarua.

Azaroak 17, martitzena:

Autodefentsa-ikastarua: "Beldurrak jai gurekin". 19:00etatik aurrera ...eta kitto!-n.

Azaroak 20, barixakua:

Barixakuak Jolasian: txokolatada. 17:30etik aurrera ...eta kitto!-n.

Azaroak 21, zapatua:

Gurasoak Berbetan, Txuri-Urdiñera irteera.

Azaroak 22, domeka:

San Andres bertso-jaialdia.

19:00etatik aurrera Portaleko areto nagusian.

Azaroak 25, eguaztena:

"Nola galdu lotsa euskeraz hitz egiterakoan eta hitz egitearen arrazoiak" hitzaldia, Jürgen Wolf-en eskutik. 19:00etatik aurrera ...eta kitto!-n.



ABENDUA

Abenduak 1, martitzena:

Harixa Emoten irakurketa-taldea. Jabier Muguruzaren "Hilen logika ezkutua" liburua. 19:00etan Portalean.

Abenduak 3, eguena:

Euskeraren Eguna.

Abenduak 11, barixakua:

Barixakuak Jolasian: Gabonetako apaingarriak. 17:30ean ...eta kitto!-n.

Abenduak 12-13, zapatua eta domeka:

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak. Unibertitate Laboralean.

Abenduak 15, martitzena:

Sukaldiritari buruzko hitzaldia.

19:00etan ...eta kitto!-n.





"Isiltasuna Hautsiz" elkarteak sortu dute Eibarren sexu-indarkeria pairatu duten zenbait emakumek. Elkartearen helburuak, indarkeria sexualaren gaineko isiltasuna haustea eta sexu-indarkeria pairatu duten emakumeen ahalduntzea dira, besteak beste. "Genero eta Berdintasuna" izeneko ikastaroa antolatu dute: urrian hasiko da, edozein emakumerentzat da interesgarria eta guztioi zuzenduta dago.

LETICIA MARTINEZ-ALCOCER (ISILTASUNA HAUTSIZ-EKO lehendakaria)

"Sexu-indarkeria pairatu duten emakumeen bidelagun izan nahi dugu"

- Isiltasuna Hautsiz Elkarteak, zergatik eta nola sortu da?

Isiltasuna Hautsiz Elkarteak sexu-indarkeria pairatu dugun Eibarko zenbait emakumek sortu dugu. Bortizkeria sufritu eta hari aurre egin diogunez gero, geure eskarmentua erabili nahi dugu halako egoeretan dauden hainbat eta hainbat andrazkoren onurari.

- Zeintzuk dira Elkartearen helburuak?

Elkartearen xede nagusiak honako hauek dira: indarkeria sexualaren gaineko isiltasuna haustea, gizartearen sensibiltasunaren bultzatzea, sexu-indarkeria pairatu duten emakumeen ahalduntzea sustatzea, eta ahalduntzarako biktimen elkar-laguntza ahalbidetzea. Taldearen azken muga beti bera da: andrazkoren aurkako gogorkeriaren jatorrian dagoen sistema patriarkalaren eta androzentrikoaren balioak deseraikitzea.

- Sexu indarkeriaren kasu gehienak ezkutatu egiten dira. Zergatik gertatzen da hori?

Indarkeria sexuala tabu da oraindik. Askotan biolentzia mota hau sufritzen duen neska edo andrea erudun sentitzen da, eta erasoak pairatu izanak lotsa eragin diezaiotke; hortaz, isilpean gordetzen du. Dударik gabe, andrazkoak ez dauka ez kulparik ez lotsarako arrazoirik, baina, azken finean, arlo askotan gizonaren mende egoten ikasi du. Izan ere, indarkeria sexu-hierarkiari eusten dion sistema androzentrikoak sustatzen dituen ba-

lioen adierazpena da. Sistema horren oinarrian emakumeak eta emetasuna gutxietsi eta menderatu, eta gizontasunari nagusitasuna eta prestigioa ematearen ideia dago. Beraz, patriarkatuaren hezi eta hazi gaituztenez, erraza da emakumeek inkontzienteki gure kalterako jorkabideak barneratzea.

- Zer egin dezake elkarteak sexu indarkeria jasanduten emakumeen mesedetan?

Gure elkartearen ekarpenik garrantzitsuenak eskarmentuan oinarritutako arreta eskaintzea da, indarkeria sufritu duen emakumerentzat dola bera gainditu duena baino bidelagun hoberik ez baitago. Pairatutako biolentziari aurre egiteko prozesua luzea eta gogorra izaten da maiz, eta kasu horietan batik bat, sostengu ezin hobea da erasotutako aldamenean edukitzea bere beldurrak, ezbaiak, goibeldurak eta nekeak epairik gabe uler ditzaketen bidaideak.

Orobat, arreta eta sostengu horietaz gain, sentzibilizazio- zein formakuntza-ekintzak garatu nahi ditugu. Urrian bertan "Genero eta Berdintasuna" izeneko ikastaroari hasiera emango diogu. Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Andretxearen laguntzarekin antolatu dugu. Ikastaroa edozein emakumerentzat da interesgarria eta guztioi zuzenduta dago. Izan ere, indarkeria sexuala jasan ala ez, andrazko guztiok behar ditugu ahalduntzerako baliabideak. Esan dezakegu ahalduntzea eraldaketa-pro-

zesu bat dela, zeinaren bidez emakumeak, arian-arian, besteentzako eta besteen objektu izateari uzten dion, bere bizitzaren subjektu nahiz historiaren, kulturaren, politikaren eta gizarte-bizitzaren protagonista bilakatzeko.

- Nora jo behar du ikastaro honi buruzko informazio gehiago nahi duenak?

28 orduko ikastaroa da. Honako gai hauek jorratuko dira, besteak beste: sexu/genero binarismoa, zapalkuntza sistemak, sexismoa, hezikuntza, hizkuntza, amatasuna, ekonomia eta zaintza, gorputza eta sexualitatea, ... Saiotxo hamabostean behin izango dira, hilaren lehen eta hirugarren ostegunetan, 18:00etatik 20:00etara, urriaren 1ean hasita. Beatriz Zalacain adituak emango du ikastaroa, Portalean. Guztira 15 € ordaindu behar dira, materiala barne. Izena ematea irailaren 21ean, 23an eta 25ean egin ahal izango da, 9:00etatik 11:00ak arte Zenezbide 9an egoitza duen Andretxean. Dena dela, norbaitek zalantzarik izanez gero, telefono honetara deitu dezake: 608616827.

- Uda honetan Euskal Herriko herri askotan salatutako sexu-erasoak. Tolerantzia guztiago dugun seinale izan daiteke?

Bai, agian erasoak ez dira ugari baina emakumeok gero eta kontzientzia handiagoa dugu bai indarkeriaren gainean bai geure eskubideei buruz. Esango nuke, kontzientzia horren ondorioz, isiltasuna hausten hasi garela salaketan bidez.

ITZIAR ARISTONDO AMUTXASTEGI

Lehen urteurrena: 2014-IX-17

"ZURE irribarre eta samurtasuna betiko izango dira GURE ARTEAN"

BERE ALDEKO MEZA ospatuko da irailaren 20an (domeka), eguerdiko 12.00etan, Karmengo Amaren parrokiari.



“La Fábrica de Lambretta en España. Visita a sus instalaciones en Eibar” izeneko liburua aurkeztu eben abuztuaren hasieran Gijonen egin zan Euroyeyé hitzorduan. Lambretta firmaren jarraitzailliak batzen dittuan ekitaldixan egiñ eban aurkezpen hori Lambretta España Club-ak. Aurretik be badira Lambrettaren inguruan egindako liburuak, Patxi Lejardik guri laga deskun “Lambretta (Serveta) La eterna segundona (1954-1990)” esaterako, bigarren ediziñua kaliañ jarri ebana. Urtero, bestalde, gure herrixan Lambretta Jaixa ospatzen da, San Kristobalgo jaixekin batera (hamabi ediziñora aillegau dira). Eta, abuztuan bertan, Badajozetik gurera arteko biajia egin eban Juan Carlos Vidartek 1957ko bere Lambrettarekin.



Lambrettak hillaran Otaola etorbidian egon zan fabrikaren aurrian.

Lambretta : historia egitten segitzen dau

Abuztuan aurkeztutako liburu barrixa oin dala urtebete jarri zan mar-txan, Foat Bilboko enpresatik Felix Dominguez Españaiko Lambretta Club-eko presidentiari jakiñarazi zetsenian Eibarren izan genduan enpresaren irudixak zittuan 70 argazkixen negatibuak aurkittu zirala. Materixal hori erosi eta, “batez be grafikua dan liburu egittiarri” ekin zetsen, “kolekzionistendako aproposa izan leikiena”. Publikaziñuan, gaiñera, “oiñ arte egin bako enpresaren inguruko sormenaren bisio barrixa eskintzen da: zelan eta zer-gaittik sortu zan eta, aldi berian, baita zer-

gaittik desagertu zan argittuz”, liburuaren sarreran esaten danez. Aittatutakua-rekin batera, liburuan bes-telako dokumentaziñua be azaltzen da eta, baita be, beste instituziñuetako eta partikularren argazkixak.

Lambretta Locomociones SA 1953an sortu zan Eibarren, Florencio Irigoien zuzendari zala. Gure herrikua estaduan zabaltzen zan automozioñoko hirugarren en-

presia izan zan. Italiako markaren motozikletak egitten hasi ziran bertan eta lizentzia zeken markaren scooterrak eta motokarruak egittetako. Otaola Etorbideko eraikiña -gaur egun Ertzaintzaren instalaziñuak dagoz bertan- 1953ko maiatzaren 25ian hasi zan jasotzen eta, handik urtebetera, 1954ko ekaiñaren



Francisco Herrerosen Servetaren inguruko liburu.

10ian inaugurau zan. Gaiñera, goiko aldian baekan terraza bat be, motozikletekin probak egittetako aprobetxatzen zana; hori bai, 50 kilometro orduko zan hartu zekian gehieneko abiadura.

1954an lehen motozikleta

Patxi Lejardi gaur egun udal ziñegotzixa dana izango da Lambretten jarraitzaillle sutsuenetarikua. Berak laga deskun aurretik etarako Francisco Herrerosen

Servetaren inguruko liburuan agertzen danez, “hasierako plantillia 28 lagunekua izan zan; horri Maquinas de Coser Alfan motozikletendako bes-telako piezak egitteten eguazen beste 16 lagun gehittu bihar-ko jakuen”. 125 LD izan zan saldu zan lehelengo modelua, 1954ko julixuan: “Urte horretan 483 unidate saldu ziran eta, handik lau urtera -1958xan- 17.000 motozikleta”. 1966xan 520 bihargin zekan enpresak eta izan zan 800 bihargiñetik gora euki zittuan sasoi be. Motozikleten preziuaren



Lambrettak nagusi izan ziran hainbat urtetan.

inguruan, "1958xan, unidate bakotxaren-gaittik 15.600 eta 17.500 pezetaren tartian ordaindu bihar zan -hori da, 94 eta 105 euroren artian-". Martxan egon zan urte gutzi horretan Vespak be indartsu eguzen eta azken modelo honen arrakastak "asko bihartzen zeban Lambretten fabrikaziñuan mehoratzia". Gero etorri zan jaitseria eta, esaterako, 1980ko abendurako 2.000 unidate egin ziran bakarrik, horretako erdixa estaduan saltzeko eta bes-te erdixa kanpuan.

Eibarko motozikleta berezixak

Lejardik lau Lambretta ditte eta, okasiño berezietatik kanpo be, ez da arrarua izaten bera motozikletaren gaiñian ikustia: "Motor elegantia da, gure eguraldirako-eta aproposa, hankak ez jatzuz bustitzen. Gaiñera, Eibarren egindakuak badake aurreko partian identifikaziñua, San Andres gurutzia, desbardiña egitten dabena. Kanpuan egon garenian be, Ingalaterran-eta, eibartar moduan identifikatzen dabe, ez

española moduan". Datorren urtian konzentraziñua Portugalen izango dala esan desku eta urtero Santanderrera eta Bilbora egitten dittuen urteerak be gogoratzen deskuz.

Gaur egun Lambrettak ez egittiari "gure industriarako aukera bikaiñia galdu izana" deritzo. "Orbea, BH eta GAC-en egitten ziran bizikleten ondoren, inportantiak izan ziran Alfa -mikrofusiño eta fundiziñuan- eta ABC -pistoiaik eta konpresoriaik- motorraren bidian sartzeko. Eurak Milanetik motorra ekarri zeskuenian guk montajia eta distribuziñua egitteko aukeria izan genduan eta, baitta, erremintak egitteko lizentzia eskurau be".



Juan Carlos Vidarte Badajozeko fotografiuak aurre egin zetsan motorraren aberixeri Eibarrera heltzeko.



ñua egitteko: "Zapatuan erakustaldixa egitten dogu Untzagan eta gero itzulixa herri-ttik, San Kristobalera igota". Ehun bat motor batzen dira urtero, estadu osotik etorritakuak. Aurten, gaiñera, egun batzuk geruago Juan Carlos Vidarte Badajozeko fotografiuaren bisitia izan genduan Eibarren: "Personaje berezixa benetan! 1977xan bere aittak erositako motorraren faktura orijinala aurkittu eban eta hona etortzia erabagi eban. Aberixia be izan zeban, baiña moldatu zan honaiño aillegatzeko". Lejardik diñuan moduan, "motorra aberixatzen bajaku, kondemautagagok guk geuk konpontzera. Eurekin ibilli eta gozatzera jarraitzeko".



Hamabi ediziño bete dittu Lambretten konzentraziñuak. LEIRE ITURBE

San Kristobal

"Lambrettakuondako berezixa izan da beti San Kristobal eguna. Enpresan be egun bakarra zan jai egitten genduan urtero", diño Patxik. Horregaittik, azken hamabi urtiotan julixuan Eibarko auzo horretako jaixak aprobeztatzen dittue motorren konzentrazi-



Funeraria-Ehortzetxe
Mugica

EIBAR



Beilatokia
Funeuskadi Eibar:
Otaola, 27

ELGOIBAR



Beilatokia:
SIGMA Industrialdea
(Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko erdialdean



Bulegoa Bidebarrieta, 20

24 orduko zerbitzu iraunkorra

943 20 19 51 www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea

GRUPO Funeuskadi

2015/16 EUSKARA IKASTAROAK

matrikula zabalik



EUSKALDUNTZE OROKORRA
(AURREZ AURREKOA EDO AUTOIKASKUNTZA)

XEDE BEREZIKO IKASTAROAK
(AURREZ AURREKOA)

- 1. / 2. / 3. (EGA) eta 4. mailak
- Hizkuntza eskakizunak: IVAP, Irale, Osakidetza

ON LINE

- H-100 (Euskaltzaindiaren arauak)
- H-501 (Testugintza)
- 3. eta 4. mailak
- EGA lantzeko zerbitzu osagarriak
- Administrazio idazkiak
- Eskatzailearen neurriko ikastaroen diseinua
- Glotodidaktika

eibar@aek.eus Udalaren laguntzaz
BEKA SISTEMA

Sostoa 1, 1. solairua Tfnoa: 943 201 379

Arrateko idi-dema Berriatuko Lorea Aranorentzat

Hiru idi-parek hartu zuten parte domeka arratsaldean Arrateko Kofradia Egunean jokatutako proban. Hirugarren jardun zuen Barriatuko idi-parea nagusitu zen, 43 plaza, 3 zinta eta 5 metro eginez. Zaldibiako Roman Elosegiren idiak bigarren sail-

katu ziren, 43 plazarekin, eta azken postuarekin konformatu izan behar zuten Vicente Areta "Mendigoitxi"-renak, 36 plaza eta 2 zintarekin. Eibartarrak Iñaki Urrutia eta Asier Alegria izan zituen laguntzen karretero lanetan.



Josu Uriarte izan zen lehena Arratera iristen

26 minutu eta 54 segundo behar izan zituen Uriartek Klub Deportiboaren aurretik irten eta Arrateko zelaira iristeko domeka goizean jokatutako Simon Aldazabal Igoeraren 20. edizioan. Atzetik izan zituen Pello Osoro, 30 segundora, eta Igor Fernandez, 2 minutu eta 15 segundora. 45 atleta izan ziren parte hartzen eta Jokin Azkoagak jaso zuen Oberena harategiak emandako saria Urkizuko iturritik pasatzen lehena izatean. Bestalde, oraingoa Gabonetan bueltan jokatzen den San Silbestre lasterketaren antolatze lanetan dihardutenak omendu zituzten "urteotan egindako lan isil eta ederra eskertzeko".



Ardo eta arrain bidea amaitu dute Deporren

Aurreko zapatuan burutu zuten Klub Deportiboko mendi batzordeak antolatutako Ardo eta arrain bidearen laugarren eta azken etapa. 34 lagun bildu ziren Estibalitz eta Mendibilen arteko 15 kilometroko ibilbidea egiteko eta, eguraldi ona lagun, Mendibilen bertan egindako bazkariarekin amaitu zuten lau etapako egitasmoa. Hurrengo irteera Picos de Europa egingo dute hilaren 26 eta 27ko asteburuan, Jito de Escarandi-Morro Lechugales (2.444 m.)-Pandebano-Peña Casti (2.446 m.)-Cueva hielu ibilbidearekin. Irteera horretan parte hartzeko Deporren eman daiteke izena.

Deltecokoen lan bikaina Zumaian

Zapatuan Zumaian jokatutako triatloi sprinten Euskadiko txapelketan, Pello Osoro bigarrena izan zen, juniorretan bere anaia Txomin bezala (28.a sailkapen



absolutuan) eta Edu Oiarzunek beteranoen V2 mailako txapela jantzi zuen. Eibarko taldearekin hartu zuten parte ere Joseba Ortegak, Ioseba Tamayok, Jon Illarrendik eta Alberto Agirrek. Emakumezkoetan, bestalde, **Esther Pagei** 32.a izan zen eta **Maia-len Zamakola** 41.a (argazkian).

Zilarrezko saria Urbateko waterpolistentzat Arcachonen

Euskal Herriko eta Frantziako goi mailako taldeak hartzen dituen Arcachongo torneoan, Urbateko infantil mailako neska-mutilak finalera iritsi ziren hor Oiasso Bidasoarekin 6-10 galtzeko, neurketaren atsedenaldira 5-2 aurretik erretiratu eta gero. Hala ere, urrats handia da Eibarko waterpolistentzat, maila horretan 10 jokalar berri ditzutelako taldean.



Gipuzkoako triatloi sprint txapelketa jokatuko da bihar Mutriku

Mutriku III. Sprint Triatloian probintziako txapelketa ere izango da jokoan. Sprint distantzian jokatuko da (750 metro igerian, 18'6 kilometro bizikleta gainean eta beste 5 antxintxiketan) eta EHko triatloi zirkuitorako 14. proba puntuagarria izango da. Lasterketa 17.00etan hasiko da emakumezkoen mailan eta



ordu laurden geroago gizonezkoen kasuan. Boxeak Mutriku hondartza munizipaleko kantina dagoen lautadan egongo dira. Goizean, bestalde, Triatloi Herrikoia izango da jokoan, arratsaldekoaren distantzia erdian.

Cuevas baino hoberik? Bakarria izango da munduan!

Hori da! Bakarria izan baizen, 100 kilometro antxintxiketan egin eta gero, bere aurretik helmugara iristen. Eibartarrak lasterketa bikaina egin zuen aurreko zapatuan Holandako Winschoten, munduko azpitxapeldun izateraino. New Balanceko atletak 100 kilometro bikain egin zituen Munduko Txapelketan eta proba 6 ordu, 35 minutu eta 49 segundoko denboran amaitu zuen. Bere aurretik sailkatu zen bakarria Jonas Buud suediarra munduko eta Europako txapelduna izan zen (6 ordu, 22 minutu eta 48 segundo). Eibartarrak lasterketaren azken zatian izan zituen arazo muskularrei egin behar izan zien aurre; baina, hala eta

gutziz, pozarren dago lortutako emaitzarekin. "Azken hilabeteak ez dira errazak izan guretzat etxean, denbora gutxian aitaginarrera hil baitzaigu. Horrek batez ere eragin psikikoa izan du nire azken egunetako lanean eta ez zalantza handiak nituen, estresatuta igarri dut neure burua. Lehen hamarren artean sailkatzearekin konformetzen nintzen". Baina Asierrek aurreko Munduko Txapelketan lortutako postua gainditu du oraingoan: laugarrena izan zen orduan. Ez da ahaztu behar, dena dela, distantzia ikaragarri horretako Europako txapela jantzitakoa dela Asier.



kabideetan, kirol arlokoetan ere". Foballa gutziz nagusitzen den gure mundu ho-

netan, baina, "sare sozialetan jarraitu didatenei eskerrak ematea besterik ez zait gertatzen. Harrituta geratu naiz zenbat eta zenbat izan diren". Orain hankak errekupe ratzea lehenesten du Cuevasak: "42 urte ere baditut honezkerok". Hurrengo erronka? "Datorren urteko Mundiala prestatzea".



Munduko azpitxapeldunak jarraitzaileak izan zituen zain aireportuan.

Harro zaletuekin

Dena dela, izango du -eta badu- Asierrek minberatzeko motiborik ikusita komunikabide handienek berriari emandako tratuz: "Atentzioa eman dit zein oihartzun txikia izan duen hemengo Euskal Herriko komuni-

Denboraldi hasiera azkarregia Katu Kalek

Azken denboraldian maila igo ondoren, neurketa gogorra izango du gure herriko saskibaloi taldeak ikasturte berriari ekiteko. Astekari hau inprentara bidali eta gero, atzo arratsaldean hartuko zuen Ipuruan Goierri KE, iaz goragoko mailan jardun zuen eta jaitsi egin den taldea. Partidu horretarako, gainera, eibartarrek Arizmendiarrieta, Urko eta Urkuren baja seguruak zituen eta zalantzan zeuden Iñakik jokatu ahalko zuen.



Eibar - At. Madril bihar 20.30ean Ipuruan

Mendilibarren mutilek puntu bat ateratzen diote sailkapenean biharko aurkariei eta seinale ona izango da partidua amaieran ere aurretik izatea. Jakina, ez da partidu errazik izango, eibartarrek orain arte behin bakarrik irabazi baitiote Atletico de Madril taldeari (2-1, 200-01 denboraldian). Orain zazpi egunetan hiru partidu izango dituzte eibartarrek: hurrengo eguaztenean, hilaren 23an, Eibarrek Levanteren aurka jokatuko du Valentzian (20.00-etan) eta hurrengo zapatuan Celta hartuko dute Ipuruan, gaueko 22.00etan hasiko den partiduan.

Debabarreneko I. Raid-a hilaren 26an

Btt, trekking eta arroil jaitsiera nabarmenduko dira datorren asteko zapatuan 52 kilometroko ibilidean Elgoibarren, egingo den Debabarreneko I. Raid-ean. Elgoibarko Morkaiko mendi elkarteak antolatutako proba Raid-en Euskal Ligarako puntuagarria izango da eta parte-hartzaileek hiru modalitetan jarduteko aukera izango dute: emakumezkoena, gizonzkoena eta mistoa. Probako zatiak, bestalde, mendi-bizikletarekin zein oinez egin ahal izango dira eta,

gehienez jota, zazpi orduko epean helmugaratu beharko dira. Aipatutako 52 kilometroko ibilbide horretan 2.500 metroko desnibela gaindituko dute (izango da ere beste aukera bat: 32 kilometroko ibilbidea osatzea, 1.200 metroko desnibelarekin). Proba bost sekziotan banatuta dago: orientazioa, btt, trekking, btt bigarren aldiz eta arroil jaitsiera. Izena emateko epea eguaztenean, hilaren 20an, amaituko da www.kirolprobak.com helbidean.

+ OSASUN GAZDA

Dentistak

arat
Hortz-Klinika

ARRETA-ZERBITZU INTEGRALA

Hortz-osasuneko profesional taldea zure zerbitzura

Mutua, konpainia eta kolektibo handiekin itundutako zentroa...

Clinicas dentales UniverSalud

TORIBIO ETXEBARRIA, 4 - 1. Esk. Telf: 943 20 18 51

RPS 04/02

IRAZABAL
clínica dental

Irribarreetan adituak
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.
Tfnoa. 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

Errehabilitazioa

CRF AMOSTEGI
ERREHABILITAZIOA

- * Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala
- * Min-Unitatea
- * Inkontinentzia urinarioak
- * Kirol medikuntza
- * Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)
Tfnoa. 943 20 34 46 Tfnoa. 943 74 33 74

RPS: 53/13

bista eder
clínica dental - hortz klinika

Asko dira gure hortz-kliniketara etortzeko arrazoiak

20.000tik GORA PAZIENTE ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT

Bista Eder, 19 943 70 00 82

hartz-klinika
B. IZAGIRRE
clínica dental

EGUNERO

Untzaga, 5 - 4. Tel. 943 70 23 85

Estetika klinika

abontza
clínica estética

Dr. J. Ramón Fdez. Ciudad

MEDIKUNTZA ESTETIKOA

KIRURGIA ESTETIKOA

Egiguren, 6 - behea 943 206 044

Pedro Etxebarria Gisasola
DENTISTA

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara

EGUNERO

Calbeton 19 - 3. ezk. Tfnoa: 943 20 72 17

invisalign
Ikusten ez den ortodontzia

Ortodontzia ume eta helduentzat

M^a Dolores Olaizola Doktorea
RPS 195/11

EIBARKO ZENTRO MEDIKOA
Urkitzu, 13 (Orbeako Dorreak)
Telf.: 943 120 200 - 943 425 706
www.martadoloresolaizola.com

Fisioterapia

ANE MENDIA
970 Kolegiatu zklkia.

ARRAQUETA, 20
Telf: 943 53 06 42
ane_mendia@hotmail.com

FISIOTERAPIA ZENTRUA

GASTESI
Hortz-Klinika
Ane Gastesi

Odontologia orokorra eta prebentziozkoa / PADI
Ortodontzia / Implanteak / Laser Teknologia

Bidebarrieta, 10 - 2. eskuma 943 70 00 90

MIGUEL SEMINARIO
ZURIARRAIN ODONTOLOGOA

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Implanteak

Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 943-702896

**HEMEN ZURE TOKIA izan nahi baduzu ...
... deitu 943-206776 telefono zenbakira**

Ginekologia

M^a Jose Ruiz de Porres DOKTOREA

- Bularren azterketa
- Minbiziaren azterketa prebentiboa
- Zitologia
- Baginako eta sabelaldeko ekografia
- Mamografiak
- Bularretako ekografia
- Nerabeentzako arreta
- Menopausiadunentzako arreta
- Dentsitometriak
- Haurdunaldiaren kontrola
- Kontrazepzioa

T. Etxebarria, 4 - 1. ezk. 943 20 28 57

Okulistak

Oftalmologoak
Centro de Oftalmología Avanzada

JOSE ALBERDI

ARRATSALDEZ

San Juan 11 - solairuartera
943 20 19 82



Recalde

Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinikina

- Miopia ebakuntzak
(femtosegundoko laserrarekin)

R.P.S. 234/13



Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com

Podologoak

- Kiropodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak digitalizatuak (scanner bidezko inpresioa)



**ELENA
AIZPUN**
PODOLOGOA
124 kolegiatu zenbakia

T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 5 - 1. A
943 12 14 93 / 696 555 208



BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050

ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943 799746

PODOLOGOA Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)



PODOLOGOA

Maider
Lopez
Etxebarria

Arragueta 2 Bis-B, Behea C
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.



Iñaki Rivero Zabaleta

Calbeton, 4 - 2.
(Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41

Psikologoak



BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. buloan
www.centroamets.com

Coro Ortíz de Urbina
PSIKOLOGOA (G201987 kolegiatua)

- Masterra Praktika Klinikoa
- Master P.N.L.
- Trainer

Tel. 675 70 68 07

Maialen Hernandez
PSIKOPEDAGOGOA

- Lengoia trastornoak
- Gizarteratze arazoak
- Autoestima arazoak
- Hiperaktibitatea
- Autoestima arazoak
- Dislexia

Tel. 605 75 75 06



Arantza Alvarez
Psikologoa-Sexologoa
1517 - GZ Kol. zkia.

www.centrodesexologia.com
Tfnoa. 645 73 23 88

KONTSULTAK: Eibar / Durango / Donostia

AROR

PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA

(Ume eta helduendako)

Ana Artamendi

- Afasiak
- Dislexiak
- Disfoniak
- Hizmoteltasuna
- Dislaliak
- Eskola arazoak
- Degluzio atipikoa

T. Etxebarria, 10 - 6. ezk. (EIBAR)
Tel. 943 20 27 15 / 670 82 43 27

GURASO TALDEAK

- Amatasuna eta aitatasuna:
Batera hazten (0 eta 7 urte bitarteko seme-alabekin).
- Nerabezarro eta garapen osasungarritasuna.
Nerabe gurasoentzat.
- Haziera kontzientea: Amentzako talde terapeutikoak.

943 20 22 06
www.arratepsicoterapia.com

PSIKOTERAPIA ZENTRUA

Lorena Izaguirre Garcia

PSIKOLOGOA-PSIKOTERAPEUTA

Errebal, 15 - 1. ezk. EIBAR
Zuberoa, 4 ZARAUTZ
Tel. 943 831 618

Psikologia klinikoa eta
Psikoterapia zentroa



Oscar Mondragon Lili

GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ

Urkizu, 13 - beheka

Tel. 943206823 eta 686859023

berbetan

Eibarren euskera praktikatzeko taldeak

Ikasturte berriarekin batera abiatuko da Eibarko berbalagunen programa: **BERBETAN**. Euskera praktikatu nahi dutenei giro natural, informal eta atsegina eskaintzen die egitasmoak. Astean behin ordubete, ez du besterik eskatzen, eta aldiz, ematen duena handia da: euskeraz berba egiteko ohitura hartu, euskeraz egiteko erraztasuna lortu eta lotsa eta beldurrak aldentu.



ORAIN DELA HAMABOST URTE SORTUZEN EGITASMO HONEK izan du garapena eta gaur egun **Gurasoak Berbetan**, **Dendariak Berbetan** eta **Ostalariak Berbetan** azpitaldeak ere badauzkagu.

Dendari eta Ostalarien kasuan "Euskeraz Primeran" kanpainaren lelopean, euron lantokian bertan, hau da, gune naturalean, lehen hitza edo berba euskeraz egiteko eskatu zitzaizen eta erantzuna benetan arrakastatsua izan da; izan ere, 200 dendatik gora eta ia 80 tabernak bat egin dute ekimenarekin. Berbetan orokorrean eta Gurasoak Berbetan, aldiz, kopuruak gora egin badu ere ez gara 100 lagunera heltzen eta horixe izango da, hain zuzen ere, aurtengo erronka.

Talde naturalak

Aurten denbora eta lotsaren aitzakiak ezin go ditugu erabili, izan ere **talde naturaletan** izena emateko aukera egongo da. Betiko lagunekin eta betidanik egiten genuen hori egi-

ten. Konpromiso txiki bat besterik ez dugu eskatuko: umeei bokadilloa ematen diegun bitartean gutxienez euskeraz jardutea, ostirale-tako lehen potea euskeraz egitea, parkean gauden bitartean euskeraz berba egitea.

Ikasturte osoan ekintza osagarriak

Taldean arteko harremanak bultzatzeko, hau da, euskal harreman sarea zabaltzeko eta euskera aisialdi eta gozamenarekin lotzeko ikasturte osorako eskaintza zabala prestatu dugu: antzezlanak, hitzaldiak, ikastaroak, irteerak, lehiaketak...

Eguaztenean aurkezpena, bideoarekin

Kartelak, diptikoak eta **bideoa** ere prestatu dute, Berbetan zer den azaldu eta parte hartzera animatu zaitezten. Etorri asteazkenean, hilaren 23an, udaletxeko Pleno Aretoan egingo dugun Berbetan kanpainaren aurkezpenera eta bideoaren estreinaldira. Merezki du!



Jon Errasti eta Aitor Gorosabel, datorren asteazkenean aurkeztuko den bideoa grabatzen.



plancha LARRUGA

ORIGINALA eta Eibarren



**PLANTXA-LAN
ZERBITZU AZKARRA**



**628 092 147
943 207 829
608 055 302**

info@planchalarruga.com

Sostoatarren, 2

inoiz IKUSI GABEKOA!!!

**ETXEAN JASOTZEA
ETA ENTREGATZEA
iIDOAN!!**

IRAILAK 25 (ostirala)
Untzaga plazan

Berbetan jaialdia

17:30-19:00
• PUZGARRIAK
• TAILERRAK
• GLOBO-BANAKETA

19:00-20:00
Iriren lagunekin
KANTA ETA DANTZA IKUSKIZUNA



BERBETAN JAIALDIA

Datorren ostiralean, Berbetan Jaialdia ospatuko dugu Untzaga Plazan: puzgarriak, eskulantailerrak, globo-banaketa, Iriren lagunekin "Kanta eta Dantza" ikuskizuna...

Umeek primeran pasatuko dute eta zuek helduok Berbetanen izena emateko aukera izango duzue, edota oraindik ere gaitasunean apur bat gehiago hobetzea nahi izanez gero, AEK eta Udal Euskaltegian izena eman ahal izango duzue. Zuen zain egongo gara!

EibarLAB's tailerra

EibarLAB's teknologia berrien hastapen tailerretako laugarrena eta azkena gaur (Lezon) eta bihar (Eibarko Biharian espazioan, Ubitxa 16an) emango dute: "Zurgintza tailerra" (egurra eta polikarbonatoa) izenburukoarekin "arozgintza tradizionala eta bere aplikazio berriak ezagutaraztea" nahi dute eta, horretarako, ate mugikorra duen bionbo estiloko itxutura arin bat eraikiko dute. Hamabost urtetik gorakoentzat antolatutako tailerra 09.30ean hasi eta 13.30ean amaituko da eta izena emateko eibarlabs@gmail.com helbidera idatzi daiteke (izen-abizenak eta tailerraren izenburua zehaztuta). Informazio gehiagorako www.eibarlabs.blogspot.com.es helbidean begiratu.



8 eurotan ikusi ahal izango da bihar Coliseoan Fernando Valsegak eta Exilio New Tango-k aurkeztuko duten ikuskizuna.

Argentinako tangoa bertatik bertara

Fernando Valsega eta Exilio New Tango-ren eskutik "Sur, la luna al revés", Argentinako tangoari eskainitako ikuskizuna ailegatuko da Coliseora bihar, 20.30ean hasita. Taula gainean Fernando Valsega (ahotsa), Cristian Moya (pianoa), Darío Polonara (bandoleona), Emiliano Roca (kontrabaxua) eta Martín Aravena (biolin eta gitarra) musikariek dantzarien laguntza izango dute (hiru bikote, Maia & Gabo, Giselle & Roque, Bárbara & Nelson).

Valsegak eta Exilio New Tango orkestrak erritmoak eta garaiak konbinatzen dituen konpainia

osatzen dute eta, fusioari atek beti zabalik izanik, askotariko aldaerak batzen dituen ikus-entzuzko kaleidoskopioa sortu dute: "Tango orkestren klasikotasuna, bandoleona, pianoa, kontrabaxua, biolina eta ahotsa dantzari ikusgarrien dantza sentsualarekin lagunduta egongo dira. Eta eszenatokian interpretatzen joango diren gai bakoitza fondo bisualekin osatzen joango direnez, ikuskizunak publikoarekin Buenos Airesen esentziaren zatitxo bat partekatzeke tarte eskainiko du". Sarreak 8 euro balio du.

Cielito Mexikoko erritmora

Domekan 12.30ean emango du Cielito Musika Bandak denboraldiko lehen kontzertua Coliseoan eta ikasturteari modu berezian ekin nahi izan diote, lehen aldiz Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako mariatxiarekin batera emanaldia eskainita.



Egitarrau osatzeko Mexiko aldeko kantu ezagunak aukeratu dituzte: "El Duelo", "El Mariachi", "El Rey", "El sol no regresa", "Ella", "En mi viejo San Juan", "Hoy tengo ganas de ti", "Jalisco", "Memorias de una vieja canción", "Perdón", "Potpourri", "Sublime mujer", "Volver" eta "Y nos dieron las diez". Sarrera, betiko moduan, doan izango da.

33 ikuskizun abendura bitarteko kultur eskaintzan

Udaleko Kultura sailak irailetik abendura bitarterako Coliseoko egitaraua aurkeztu zuen martitzenean Portalean, hilaren 25ean "De cuerpo presente" komedia taularatuko duen Glu Glu konpainiakoen parte-hartzea izan zuen ekitaldian. Prestatu duten programazioan 33 ikuskizun edo emanaldi batu dituzte eta eskaintzan musika, dantza, antzerkia zein bestelakoak daude. Miguel de los Toyos alkateteak azaldu zuenez, "Antzerki Jardunaldietatik haratago, urte osoa kulturaz betetzeko erronkari heldu behar diogu eta, horretarako, jendeari erakargarriak egiten zaizkion ikuskizunak eskaintzen ahalegindu behar dugu. Horrekin batera, herriari dauzkagun talde eta ar-



Glu Glu Producciones-en "En cuerpo presente"ko antzezleak izan ziren udal ordezkarekin urte amaiera arteko kultur eskaintza aurkezten. SILBIA HERNANDEZ

tisten aldeko apustu garbia egiten dugu". Hori aurkezpen ekitaldian bertan agerian geratu zen, Glu Glu taldearekin batera dabilen Ylenia Baglietto eibartarra han egon baitzen, hemendik egun batzuetara Coliseoko taula gainean eskainiko duten lanean parte hartuko duten Gorka Aginagalde, Gurutze Beitia eta Mari Cruz Melgosa antzezleek lagunduta. Protagonistek aurreratu zuten, "jendeak ondo baino hobeto pasatuko du umore beltzez gainezka egiten duen lana ikustera etorritz gero, ez zaio damutuko". Glu Glu taldearen "De cuerpo presente" antzezlana hilaren 25ean (barixakuan) hartuko du Coliseoak, 20.30etatik aurrera eta sarrerak 10 euro balio du.

IRAILAN

19an, 20.30: "Sur, la luna al revés" (Fernando Valsega&Exilio New Tango). 8 €.
20an, 12.30: Cielito & J.B. Gisasola Musika Eskolako Mariatxiaren emanaldia.
25ean, 20.30: "De cuerpo presente" antzezlana (Glu Glu Producciones). 10 €.

URRIAN

2an, 20.30: "Itzalak/Txoriak" dantza ikuskizuna (Dantzaz konpainia). 6 €.
3an, 20.30: "Por unos pasitos de ná" dantza (Ambulantes Danza). 6 €.
9an, 20.30: "El arte de la entrevista" antzezlana (Iraya Producciones). 9 €.
15ean, 20.30: "Los esclavos, farsa contemporánea contra el consumo y otras circunstancias" antzezlana (Ikasten elkarteko antzerki taldea). 3 €.
16an, Molto Vivace taldea, XXIII. Musikaldiaren barruan. 5 €.
26an, 20.30: Emmils Dar Siggs Letoniako abesbatza. 5 €.
28an, 20.30: Stockholms Musikgymnasium Chamber Choir abesbatza. 5 €.

AZAROAN

6an, "Juan Sebastian jazz" kontzertua (Iñaki Salvador eta Alexis Delgado). 7 €.

- **Cielito Musika Bandaren kontzertuak:** irailaren 20an, urriaren 4an eta 25ean, azaroaren 20an (Serafin Zubirirekin batera) eta 21ean (Santa Zezilia serenata) eta abenduaren 20an (Gabonetako kontzertua).

7an, 20.30: "Reciclar 2.0" dantza eta perkusioa (Toom Pak konpainia). 15 €.

13an, 20.30: "Little Jem" antzezlana (Eme2 Producciones). 12 €.

20an, 22.00: "Recordando a Nino Bravo" kontzertua (Cielito eta Serafin Zubiri). 10 €.

Astelena Frontoian.

21ean, 17.00: "El globo rojo" antzezlana (String Theatre). 5 €.

25ean, 15.00: "A cielo abierto" antzezlana (Manu Mansilla, Argentina).

Hezkuntza Esparruan.

28an, 20.30: Sostoa & Opera Divertimento-ren kontzertua. 12 €.

ABENDUAN

4an, 20.30: "Jobs" antzezlana (Clownic konpainia). 15 €.

5ean, 17.00: "Zapatila gorridun mutikoa" umeendako (Ados Teatro). 5 €.

12an, 17.00 Mursego umeentzat. 5 euro.

15ean, 20.00: "Kreditua" antzezlana (Tanttaka Teatro). 8 €.

18an, 20.30: Trio Medianoche-ren kontzertua. 12 €.

28an, 17.00: "Txanogorritxu" umeendako antzezlana (Glu Glu Produzioak). 5 €.

- **Usartza Txistulari Taldearen kontzertuak:** irailaren 29an (Aginagako jaiak), azaroaren 8an (Ganbara kontzertua), 20an (Nino Bravori omenaldia, Serafin Zubirirekin batera) eta 22an (Santa Zezilia kontzertua) eta abenduaren 20an (Gabonetako kontzertua).

UEUren udazkeneko ikastaroak

Udako Euskal Unibertsitateak udazken honetan eskainiko dituen ikastaroetan izena emateko epea zabalik dago. Ohiko martxari jarraituta, jakintza esparru ezberdinak bil-

tzen dituzten ikastaro eskaintza oparoa prestatu dute. On line egin daitezkeenak "Euskal Herriko ekonomia eta gizartea aztertze lanabesak. GIS librea", "Euskal Mitologia:

kultura ondarea", "Euskararen lehentasuna eta hizkuntza prebentzioaren ikuspegia Euskal Herriko marko juridikoetan (MOOC)", "HTML5 estandarra sakontzen (MOOC)", "Moodle-ren erabilera aurreratua", "R software askearen erabilera Natur Zientzietako estatistikan" eta "Sormenerako hezkuntza, artea esperimentatuz" dira. Eta ikasgelako eskaintzan, Eibarren "Gorputzaren bidez arreta garatzeko teknikak", "Itzultzaile izatetik posteditore izatera", "Nerabeekiko lana irakaskuntzan", "Raspberry Pi tailerra: irakas-

kuntzarako baliabide berria" eta "Sare sozialetan murgiltzen: nondik hasi?" emango dituzte. Horrez gain, Gasteizen eta Iruñean ere hainbat ikastaro eskainiko dira.

Ikastaro bakoitzari buruzko informazio zehatza www.ueu.eus helbidean kontsultatu daiteke eta izen-ematea ikastaroa hasi baino astebete lehenagora arte egongo da irekita. Bestalde, gogoan izan Markeskuan UEU-k ematen dituen ikastaroetan parte hartzen duten eibartarrentzat udalak diru-laguntzak ematen dituela (matrikularen %50).



Ikastaroak klasera joanda zein internet bidez egiteko aukera dago.

Indianokua martxa betean

Muzategi kaleko Indianokua gaztelekuak gogotsu ekin dio ikasturte berriari eta, ohiko martxari jarraituta, gaztelekuak ematen dituen zerbitzuekin batera, asteburuero ekin-tza ezberdinak eskainiko dituzte, gazteek arratsaldeak primeran pasatzeko. Biharko ikasturteari ongi-etorria emateko festa pres-tatu dute eta domekan, berriz, Play Station eta Wii bideokontsolekin jolasteko aukera egongo da.

Bestalde, urriko lehen asteburuan (3an eta 4an) gaztelekuaren arteko topaketa egongo du-te Arrateko aterpetxean eta parte hartu nahi duenak alde zuzenetik izena eman beharko du, horretarako irailaren 25a baino lehen Indianokuatik pasatu eta arduradunei esanda.



laburrak

AFARIKETAN

Astixak eskaintzen duen Afariketan aisialdi programarako matrikulazioa datorren astean egongo dute: astelehenetik barixakura bitartean (hilaren 21etik 25era) Indianokua gaztelekuaren egongo da horretarako aukera, goizez 10.00etatik 13.00era eta arratsaldez 16.00etatik 18.00etara. Eta, horrekin batera, astelehen eta martitzenean, 16.00etatik 18.00etara Arrateko Andra Mari ikastetxean, Amañako ludotekan eta Jazinto Olabeiko ludotekan ere egin ahal izango da.



PAGATXAREN TAILERRA

Leticia Martínez-Alcocer, Historian lizentziatuak gidatuko duen Pagatxaren irakurketa tailerra urriaren 21ean hasiko da. Parte hartzeko interesa duten bazkideek 943206735 telefonora deitu beharko dute izena emateko.

Aterri taldea domekan Soraluzen

ATERRI



latin · jazz · folk · txatxatxa · manboa
boleroa · rumba · bossanova · reggae

Eibar eta Elgoibarko musikariek osatzen duten Aterri taldeak kontzertua emango du datorren domekan, 19.00etatik aurrera Soraluzekeo Gazte-lupen. Isabel Laspiur (pianoa), Gari Araolaza (gitarra), Alfonso Guillo (kontrabaxua) eta Iñaki (bateria & perkusioak) musikarien eskutik sortutako laukoteak perkusio latino eta estandarra, kontrabaxua, pianoa eta gitarra elektrikoa bazten ditu eta eskaintzen duten errepertorioa estilo ezberdinetako kantu ezagunek osatzen dute. Hala ere, taldeak egiten duen musika "latin jazz" etiketan sar daitekeela diote, "herri musika edo folka ez delako eta, jazz iparramerikarra izan gabe, txatxatxa, mamboa, boleroa, rumba, bossanova eta reggaeren bat jotzen dutelako".

KILOMETROAK USURBILEN

urriaren
4an

g!UNK
KMK 2015 USURBIL

10 eurotan

T. Etxebarriatik
AUTOBUS

Buelta:
19.30etan



Irteera:
09.30etan

zerBITZUA

J.A. MOGEL-EKO GURASOEN ELKARTEA

...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEA

nenooS
promoting talent

Mind Body Emotion

ADIMENA ETA INBENTZIOARRI ETA ERAGINKORREAN GARATZEKO NEZKETEA METODO INTEGRALA

EZAGUTU NENOOS METODOA GURE DOAKO TAILERRETAN

3tik 13 urtera

Irailak 18 eta 25 ostirala
17-17:45 eta 18-18:45

Irailak 19 eta urriak 3 larunbata
11-11:45 eta 12-12:45

Juan Guisasola 16, Eibar • eibar@nenooS.es
Tel. 688 802 705 • www.nenooS.es

Orain dela urtebete sortu zen The Rockos. Taldea modu bikoitzean da gaztea: batetik, bere sorreratik hona denbora gutxi igaro delako. Eta, bestetik, taldea osatzen duten musikarien adinarengatik, bost kideek 18 urte dauzkate eta. Sergio Garbayo (bajua eta ahotsa), Urtzi Lamariano (gitarra), Iker Garcia (gitarra), Markel Corral (bateria) eta gure galderei erantzun dien Unai Cabanzon tronpetista, bostak elkarrekin dira The Rockos.

- Noiz eta nola sortu zenuten The Rockos?

Orain dela urtebete inguru erabaki genuen taldea sortzea. Gutariko bakoitza bere aldetik musika ikasten genbiltzan, nik adibidez hamar urte inguru daramatzat musika eta tronpeta ikasten. Elkar ezagutzen genuen eta, halako batean, gure artean taldea sortzeko ideia heldu eta The Rockos jaio zen.

- Zergatik aukeratu zenuten izena? Izan badago arrazoi berezirik?

Beste barik, taldearentzat izena pentsatu behar genuen eta, bakoitzak bere proposamenak botatzen hastean, izenzerrendan zeudenen artean hori gustatu zitzaigun eta, horrela, taldeari The Rockos deitu genion.

- Nolako musika egiten duzue?

Rocka jotzen dugu. Badauzkagu guk sortutako abesti batzuk eta, bestela, beste talde batzuenak ere jotzen ditugu: Ramones, Iggy Pop, Kortatu... pixka bat denetarik.

- Nola moldatzen zarete entseguetarako?

Legarreko lokaletan egiten ditugu entseguak, beste talde batzuekin partekatzen dugun lokalean. Gure artean berba egin eta, denak batzeko aukera dagoela ikustean, orduan jotzen gara ensaiatzera. Normalean astean behin elkartzen gara.

- Taldea nahiko berria izan arren, izan duzue kontzerturen bat emateko aukerarik?

Lehena Donostian eskaini genuen eta aurreko ekainean, berriz, Beleko tabernan jotzen gara. Bigarren hori demasa izan zen, lagun guztiak etorri ziren ikustera eta giro ederra ematea gustatuko litzaiguke eta, horregatik, tabernetako arduradunekin eta halakoekin berbetan gabiltza, emanaldi gehiago lotzeko ahalegintzen. Orain arte kontzertu bat behintzat lortu dugu antolatzea; Ez Dok tabernan, urriaren 24an eskainiko duguna, hain zuzen.



Unai Cabanzon
(THE ROCKOS)

“Kontzertu gehiago ematea gustatuko litzaiguke”

Isasi, 31 Egunero 06.00-22.00
943 207 737
 Etorri!
 Zure etxian
 egongo zara!!
KAFETEGIA OKINDEGIA
SUTLONDO

Radio Eibar
CADENA SER
104,0 FM

Iradi
LORADENDA
 - Lora eta landare natural eta lehorrak
 - Ezkontzetarako lorak
 San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, EGOITZ Eitzagaetxeberria, abuztuaren 20xan 8urte egin zenduazena-eta. Zeure etxekuen partez.



Zorionak, JONE, lau urte egiten dozuz-eta. Muxu haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be, Aneren partez.



Zorionak, FLORENCIA Marquinez Arrieta, martitzen 101 urte beteko dozuz-eta Famelixa eta zaintzaillien partez.




Zorionak, LUKEN, astelehenian 4 urtetxo beteko dozuz-eta. Patxo bat etxeko guztion eta, batez be, Ander eta Jon lehengusuen partez.



Eskerrik asko famelixa eta lagun guzteri zeuen zorion mezuengaittik. (2015/09/13). Sara Alberdi.



Zorionak, EKI, hillaren 21ian urtebete! Muxu haundi bat aitaxo, amatxo eta, batez be, zure arreba Itsasoren partez.



Zorionak, OLATZ, hillaren 22xan 10 urte beteko dozuz-eta. Muxu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, NEREA, bixar zortzi urte egingo dozuzelako. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, YURENE Rodriguez Sesma, sorgintxo, bixar zazpi urte beteko dozuz-eta. Etxeko guztien partez.



Zorionak, BEÑAT, gaur bost urte egiten dozuz-eta. Besarkada eta muxu haundi bana etxekuen partetik.



Zorionak, GORKA, gaur 10 urte egiten dozuzelako. Etxeko guztien partez.



Zorionak, neskak! Atzo INTZAK zortzi urte eta gaur MALENek 10. Milla muxu goxo etxeko danon partez!



Zorionak, EKI, astelehenian urtetxua egingo dozu-eta. ITSASO eta famelixa guztiaren partez.

hildakoak

- Gerardo Blanco Gude. 47 urte. 2015-VIII-13.
- M^a Luisa Ordas Del Val. 93 urte. 2015-IX-11.
- Jesus Sarasua Alberdi. 89 urte. 2015-IX-12.
- Manuel Vera Molina. 83 urte. 2015-IX-12.
- Juanita Pajuelo Velarde. 91 urte. 2015-IX-14.
- Agustin Cid Rey. 58 urte. 2015-IX-16.

jaiotakoak

- Einar Grande Esnaola. 2015-IX-4.
- Marina Iraolagoitia Ramirez. 2015-IX-4.
- Ander Caballero Goikoetxea. 2015-IX-4.
- Illan Martin Mtnez-Alcocer. 2015-IX-6.
- Aratz Andonegi Carrera. 2015-IX-10.

zineaColiseoan

(1 ARETOAN)

19an: 17.00, 19.45, 22.30
20an: 17.00, 20.00 (ANTZOKIAN)
21ean: 20.30 (ANTZOKIAN)

“Everest”

Zuzendaria: Baltasar Kormakur

(2 ARETOAN)

19an: 17.00, 19.45, 22.30
20an: 17.00, 20.00
21ean: 20.30

“El corredor del laberinto”

Zuzendaria: Wes Ball

(1 ARETOAN)

20an: 20.00
21ean: 20.30

“Atico sin ascensor”

Zuzendaria: Richard Loncraine

(ANTZOKIAN)

20an: 17.00

“Atrapa la bandera”

Zuzendaria: Enrique Gato



BARIXAKUA 18

ATE IREKIAK

17.00 eta 18.00. Nenoos metodoa ezagutzeko umeendako (3/13 urte) doako tailerra. Nenoos-en (Juan Gisasola, 16an).

LEGARREKO JAIK

19.30. Txupinazoa eta kalejira, trikitilari eta buruhandiekin.
20.30. Patata-tortilla txapelketa.
21.00. Herri afaria auzoko umeentzat eta talogintza tailerra.
22.00. "Magia apur bat" ikuskizuna. Ondoren, musika txosnan. Legarren.

ZAPATUA 19

LEGARREKO JAIK

09.30. Mendi ibilaldia, Legarretik irten eta Sosola baserriraino. Hamarretakoa hango produktuekin.
11.00. Pelota partidak (umeak). Frontoian.
12.00. Kalejira, trikitilari eta buruhandiekin, zaharren egoitzatik hasita.
12.15. Pintxo-triki-poteoa, buruhandiekin (Piztu eta Legarre Gain elkarteak eta Parra taberna).
13.00. Umeendako jolasak eta igel-toka txapelketa, txosnan.
14.30. Auzo bazkaria.
16.00. Dantzarako musika helduentzat.
17.00. "Atrebentziatzko ipuinak" umeendako ipuin-kontalari saioa.
18.30. Txokolata eta bizkotxoak umeentzat.
19.30. Kalejira Xero Xiette taldearekin eta buruhandiekin.
20.00. Erromeria Xero Xiette taldearen eskutik.
22.30. Pam eta Osso taldeen kontzertua. Legarren.

EIBARLAB'S

09.30/11.30. Arozgintza tailerra (egurra eta polikarbonatoa): "Ate mugikorra duen bionbo estiloko itxitura arinaren eraikuntza". Bionboaren muntaia.
11.30. Kafea.
12.00/13.30. Ajusteak bertatik bertara. "Biharrian" espazioan (Ubitxa, 16an).

ATE IREKIAK

10.30/11.30. "Haur eta gurasoak arteaz gozatuz" (2013/14 jaiotakoak).
11.30/12.30. Margogintza tailerra (2010/11/12 jaiotakoak).
17.00/18.00. Eskulan tailerra (2003/09 bitartean jaiotakoak).
18.00/19.00. Antzerki tailerra (2003/09 bitartean jaiotakoak). Tarteka sormen espazioan (Elgeta-kale, 1 behean).

ATE IREKIAK

11.00 eta 12.00. Nenoos metodoa ezagutzeko umeendako (3/13 urte) doako tailerra. Nenoos-en (Juan Gisasola, 16an)).

BIEN APARECIDA JAIK

16.30. Tute txapelketa, bazkideentzat. Kantabriako Etxearen Jardiñetako egoitzan.

GAZTELEKUA

17.00. Festa. Indianokua gaztelekuan.

PLAYBACK LEHIAKETA

18.00. VI. Playback Lehiaketa. El Corte Ingleseko terrazan (euria egiten badu, ekitaldi aretoan).

TANGO IKUSKIZUNA

20.30. "Sur, la luna al revés" (Fernando Valsega&Exilio New Tango). 8 euro. Coliseoan.

DOMEKA 20

ARRATE IZENEKOEN JAIK

08.30. Arrate izeneko XVIII. Jaia: Arratera igoera Ama Birjinaren pausoen bide zaharretik, meza, bazkaria, jolasak eta dantzaldia. Arraten.

KONTZERTUA

12.30. Cielito Musika Banda eta J.B. Gisasola Musika Eskolako Mariatxiaren emanaldia. Coliseoan.

BIEN APARECIDA JAIK

12.00. Meza, Meza Molledo-Portolineko Virgen del Camino abesbatzaren parte-hartzearekin. San Andres elizan.
13.00. Piskolabisa. Kantabriako Etxearen Jardiñetako egoitzan.

GAZTELEKUA

17.00. Play/Wii. Indianokua gaztelekuan.

KONTZERTUA

19.00. Aterri talde eibartarraren emanaldia. Gaztelupen (Soraluzen).

MARTITZENA 22

GAZTELEKUA

18.00. Play/Wii. Indianokua gaztelekuan.

EGUAZTENA 23

BERBETAN-EN AURKEZPENA

19.00. Berbetan, ...eta kitto! Euskara Elkartearen mintzapraktika egitasmoaren ikasturteko aurkezpen-ekitaldia. Udaleko pleno aretoan.

EIBARKO KANTUZALEAK


19.00. Eibarko Kantuzaleak abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

erakusketak

✓ Irailaren 30era arte



FOTOSPAI (Bartzelona) elkartearen "Dialogo entre luz y cuerpo" argazki erakusketa. *El Ambigu tabernan.*



PEDRO ARRIOLAREN "Jordania" argazki erakusketa. *Portalea tabernan.*



EXTREMADURAKO ARGAZKILARITZA ELKARTEKOEN erakusketa. *Klub Deportiboan.*



IÑAKI CAMPOSEN argazki erakusketa. *Ez Dok tabernan.*

lehiaketak

- ✓ **16. "Asier Errasti" Film Laburren Jaialdia**
Informazioa eta lanak aurkeztea: **Urriaren 2ra arte**, www.planocorto.es eta www.eibar.eus webguneetan.
- ✓ **I. Ojanguren XXVIII. Argazki Lehiaketa**
Informazioa eta lanak aurkeztea: **Urriaren 7ra arte**, Portalean.
- ✓ **1"Sanandresak Eibarren" kartel lehiaketa**
Informazioa eta lanak aurkeztea: **Urriaren 13ra arte** (19.00ak arte), Pegoran.

ikastaroak


- ✓ **"Generoa eta berdintasuna"**
Noiz: Urriaren 1etik aurrera, hileko 1. eta 3. eguenetan (18.00-20.00). Irakaslea: Beatriz Zalacain (gazteleraz). **Izen-ematea:** Andretxean (Zezenbide, 9), irailaren 21, 23 eta 25ean (09.00-11.00). 15 euro. Informazio gehiago: 608616827.
- ✓ **"Argazkigintza digitala. Lehen urratsak"**
Noiz eta non: Urriaren 19tik azaroaren 25era arte (astelehen eta eguaztenetan (19.00-21.30), Portalean. **Izen-ematea:** Irailaren 21etik urriaren 2ra (biak barne). Eibarren errolatutakoak 47 € (besteak 79 €). Pegoran.
- ✓ **Jabetze Eskolako ikastaroak**
Noiz eta non: Iraila eta abendua bitartean, Andretxean edota Portalean.
Eskaintza: "Argazkigintza eta kirola" (euskeraz, 22 ordu, izen-ematea irailaren 18ra arte); "Maitasuna ez da kristorena!" (gazteleraz, 22 ordu, izen-ematea urriaren 9ra arte); "Nire burua zaindu, zu zaindu" (gazteleraz, 16 ordu, izen-ematea urriaren 19ra arte); eta "Transfeminismoa" (gazteleraz, 8 ordu, azaroaren 6ra arte).

diru-laguntzak / beka

- ✓ **XII. Juan San Martin beka.** Eskaerak: Urriaren 9ra arte, Pegoran.
- ✓ **Umeak Eskolara.** Eskaerak: Urriaren 30era arte, Eibar Merkataritza Gune Irekian.
- ✓ **Ikasleentzat.** Eskaerak: Urriaren 30era arte, Eibar Merkataritza Gune Irekian.
- ✓ **UEUkoentzat.** Eskaerak: Irailaren 30era arte, Pegoran.
- ✓ **Enpresen azterlanetarako.** Eskaerak: Irailaren 30era arte, Pegoran.
- ✓ **Langileak kontratatzeko.** Eskaerak: Urriaren 30era arte, Pegoran.

telefono jakingarriak

SOS deiak.....	112
Pegora.....	010
Udaletxea.....	943 70 84 00
Portalea.....	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea.....	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB.....	943 20 38 43
Epaitegia.....	943 03 34 00
Iberdrola.....	901 20 20 20
Naturgas.....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak.....	943 46 46 22
Gurutze Gorria.....	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulatorioa.....	943 03 25 00
Torrekua.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza.....	943 53 17 00
Eusko Tren.....	902 54 32 10
Lurraldebus.....	943 00 01 17
Pesa.....	900 10 14 00
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon.....	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen.....	650 26 59 63



S U D O K U A

4			3	5	1	
			1	9	3	
			6			7
	6	1		5		9
9						3
8			6		1	4
1			7			
	3	9	2			
	2	6	8			4

3	4	9	7	1	6	8	2	5
5	1	2	8	3	9	4	7	6
8	7	6	2	4	5	9	1	3
4	9	1	5	7	8	3	6	2
2	5	3	4	6	1	7	8	9
6	8	7	3	9	2	1	5	4
7	3	8	6	5	4	2	9	1
9	6	4	1	2	7	5	3	8
1	2	5	9	8	3	6	4	7

AURREKOEN EMATZA

farmaziak

- ✓ **barixakua 18**
EGUNEZ Zulueta (S. Agustin, 5)
- ✓ **zapateria 19**
EGUNEZ Mandiola (S. Agustin, 3)
- ✓ **domeka 20**
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
- ✓ **astelehena 21**
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- ✓ **martitena 22**
EGUNEZ Mandiola (S. Agustin, 3)
- ✓ **eguaztena 23**
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
- ✓ **eguna 24**
EGUNEZ Lafuente (Sostoatarren, 10)
- ✓ **barixakua 25**
EGUNEZ Elorza (J. Gisasola, 18)

GAUEZ BETI
Elorza (J. Gisasola, 18)

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Pisia salgai Soroluzen. 2 logela, egongela, sukaldaria eta komuna. 60 m². Berriztua, argitsuua eta dena kanpora begira. Berogailu urdinarekin 59.000 euro. Tel. 656-758793.
- Etxebizitza salgai, bizitzera sartzeko moduan. 3 logela, egongela, 2 komun, sukaldaria berria, 5 horma-armairu eta trasteroa. Igogailua. Argitsuua. 130 m. erabilgarri.. Erdikaldean. Tel. 626-203838 eta 699-495249

1.2. Errentan

- Pisia hartuko nuke alokairuan. Tel. 608-588444.
- Pisia hartuko nuke alokairuan Eibar edo inguruan. 500 eurotik behera. Tel. 632-337083.
- Pisia hartuko nuke alokairuan Eibarren. 2 logelakoa, jantzita eta berogailuarekin. 450 euro ordaintzeko prest. Tel. 603-136727.

3. Lokalak

3.1. Salgai

- Jatetxea traspasatzen da Eibarren, terrazak handiarekin. Tel. 602-130737.

3.2. Errentan

- Bulegoa alokagai, bainuarekin. Jantzita. Tel. 600-540684.
- Garajea alokagai San Pion. 28 m². Tel. 652-775746.
- Gazteentzako lokala alokagai Jardinetan, 34an. 132 m². Dena kanpora begira. Berriztua. Legezatzatze proiektuarekin. Etxerik ez inguruan. Tel. 656-756485.
- Martxan dagoen ileapaindegia alokatzen da Eibarren. Prezio interesgarria. Tel. 679-425467.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Edozein ordutegitan. Tel. 690-134485 eta 943-740672.
- Gizona eskaintzen da igeltsu, itogin edota edozein gremiotan jarduteko. Gidatzeko baimenarekin. Tel. 637-207806.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Ordutegi zabala. Tel. 688-820508.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 626-407923.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Erreferentziak. Tel. 636-815924.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Erreferentziak. Tel. 634-748531.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, etxeko garbiketarako, sukaldaria laguntzaile jarduteko... Tel. 634-437852.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira:
Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro.
Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 09.00etatik 16.00ak arte. Tel. 680-808125.
- Mutila eskaintzen da mendian eta lorategietan lan egiteko: motosegarekin, garbiketa... Tel. 690-381698. Fco. Javier.
- Emakume arduratsua eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta bulego edo pegorak garbitzeko. Tel. 653-010861.
- Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 687-114707.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako lanak egiteko. Tel. 639-611454.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 680-973549.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 631-886450.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Esperientzia. Tel. 690-223601.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 631-342874.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 636-815924.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 697-754174.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko (elkartek, pegorak)... Tel. 631-098995.
- Neska eskaintzen da pegorak, soziedadek eta bulegoak garbitzeko. Tel. 638-421827.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak (baita hauei etxeko lanak egiten laguntzeko) edo behar bereziak dituzten pertsonak zaintzeko. Tel. 688-639371.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko Eibar, Ermua eta Elgoibarren. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 639-523390.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta orduka garbiketarako lanak egiteko. Erreferentziak. Tel. 672-442318.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 637-004773.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 638-338816.
- Neska eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Externa. Tel. 622-225561.
- Neska eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Externa. Tel. 631-278618.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Neska eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Externa. Tel. 646-778839.
- Neska eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Externa. Tel. 629-869572.
- Mutila eskaintzen da kamarero jarduteko, nagusiak zaintzeko eta tanatorioetan makilatze. Tel. 647-898016.
- Gizonezkoa eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 660-213652.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo gaixoak zaintzeko. Erreferentziak. Tel. 662-252150.
- Emakume euskalduna eskaintzen da gaez Mendaroko ospitalean edota etxeetan gaixoak zaintzeko. Tel. 669-179522.
- Neska eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 631-124942.
- Neska eskaintzen da gaez lan egiteko. Tel. 631-139915.
- Emakumea eskaintzen da gaez lan egiteko. Tel. 602-149777.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 632-879419.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta orduka garbiketarako lanak egiteko. Tel. 652-869167.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Esperientzia. Tel. 632-564679.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Edozein ordutegitan. Tel. 655-677035.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko etxean edo ospitalean eta pegorak garbitzeko. Gidatzeko baimenarekin. Tel. 631-343232.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Edozein ordutegitan. Tel. 633-357538.
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Edozein ordutegitan. Tel. 626-722291.
- Emakumea eskaintzen da orduka etxekolantarako egiteko. Tel. 632-337085.
- Emakumea eskaintzen da edozein garbiketarako motarako. Esperientzia. Tel. 639-423493.
- Mutila eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 602-891885.

4.2. Langile bila

- Fisioterapeuta eta kiromasajista behar da Eibarko ileapaindegia baterako. Lan-giro ona. Tel. 678-674250.
- Sukaldaria behar da Eibarko taberna batean. Tel. 943-254060.
- Kamarero/o behar da Eibarko taberna baterako extra moduan. Ezinbestekoa euskaraz jakitea. extraebar2015@gmail.com
- Emakume euskalduna behar da arratsaldetan umea zaintzeko. Tel. 675-708552.
- Emakume euskalduna behar da umea zaintzeko. Curriculuma bidai argazkiarekin: igreielo@gmail.com
- Kamarero/o behar da Eibarko pub batean asteburuetan lan egiteko. tre@euskalnet.net
- Kamarero/o behar da Eibarko taberna bateko barra eta jantokirako. Ezinbestekoa eskarmentua izatea. Tel. 638-480460.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

- Magisteritza ikasten diharduen neska euskalduna eskaintzen da klase partikularrak emateko. Esperientzia. Tel. 686-925897.
- Klase partikularrak ematen ditut. LH eta DBHko edozein ikasgai. Tel. 699-597315.
- Fisika, Matematikak eta Kimikako klase partikularrak eta umeentzako irakaskuntza teknikak ematen ditut. Gehienez lau laguneko taldeak. Tel. 615-705945. Iratxe.
- DBH eta Batxilergoko Matematikak etaberrretako klaseak ematen dira. 1 eta 3 ikasleko taldeak. Tel. 677-592509. Alberto.
- Euskarazko klase partikularrak ematen ditut maila guztietan (EGA azterketa, perfilak etabar prestatzeko). Baita LH eta DBHko gai guztiak ere. Esperientzia. Tel. 645-005943.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Binilozko diskoak, singleak eta LPak erosten ditut. Tel. 943-572057.
- Bugaboo Camaleon "All Black" edizioa salgai. Egoera ezin hobean. Kapota gorria opari. 500 euro. Tel. 655-709707.

6.3. Galdu/Aurkitu

- Orain dela hiru bat aste haize bolada batek Eibar FT-ren kamiseta (4-6 neurrikoa) eraman zidan. Aurkitu duenak deitu. Tel. 660-840246.
- Uztailean "ninfá" txorik ihes egin zidan. Katakua txikia da, krestarekin, grisa eta aurpegiaren biribil laranja dauka. Hitz egin eta txistua egiten du. Tel. 619-867218.

Aida Corta Anton (LOGOPEDA)

"Bizitza osoan dago logopedara joan eta arazoak konpontzeko aukera"

Urteetan ezaugarri ezberdinak dauzkaten zentruetan logopediako espezialitate anitzetan lan egiten ibili eta gero, esperientzia horrekin aberastuta, **SAN AGUSTIN KALEAN KONTSULTA** zabaltzera animatu da Aida Corta. Logopeda eibartarrak orain arte egindako lanari buruz egin digu berba eta, horrekin batera, logopediaren nondik norakoak azaldu dizkigu.

- Zure zentrua zabaltzera animatu aurretik hainbat tokitan ibili zara lanean, ezta?

Bai, logopediaren arlo ezberdinetan lan egiteko aukera izan dut. Logopedia kabinete pribatuetan batez ere irakurtzeko eta idazteko zailtasunei zein ahoskera eta ahotsarekin lotutako arazoei tratamendua ematen ibili naiz: hizkuntza atzerapenak, dislaliak (ahoskera arazoak), dislexiak (irakurmen zailtasunak), hitz-moteltasunak, disfoniak (ahots arazoak), irenseketa ez-ohikoak... Aita Menni moduko zentru espezifikoetan, berriz, kalte neurologikoetan aditua den lantalde baten barruan garun-lesioak dauzkatenekin beharrean aritu naiz. Eta Osakidetzarekin kontzertatutako zentruetan, lengoaietan, hizkeran, ahotsean zein adin tarte guztietan irenseketa gerta daitezkeen era guztietako asaldurei tratamendua ematen jardun dut beharrean.

- Nolatan animatu zara zure kabinetea zabaltzen?

Aipatutako guztietan lanean ibiltzeak asko aberastu nau eta esperientzia horrek profesional moduan haztea eragin du. Gauzak horrela, etxetik gertu nire kontsulta zabaltzeko erabakia hartu dut, horrela urteetako esperientzia horri esker ikasi dudako guztia praktikan ipini eta lanbide honetaz gozatu ahal izateko.

- Zer tratatzen du logopediak?

Logopeda komunikazioaren terapeuta da. Logopediak lengoaietan (ahozkoan, idatzizkoan edo keinu bidezkoan), mintzamenean, ahotsean, entzumenean eta funtzio orofazialean (aho-arnasketari eta mingainaren posizioari lotutakoetan) gertatzen diren asaldura edo patologiak adin tarte guztietan, umeetan zein helduetan tratatzen ditu berdin-berdin.

- Beraz, logopedia ez da soilik umeentzat...

Sarritan logopedia haurtzaroko arazoekin lotzen da zuzenean, baina uste okerra da hori. Beste edozein terapeutaekin bezala, bizitzako une ezberdinetan, bakoitzak premia duenean jo dezake logopedara. Lehen aipatu ditugun arazo guztiak edozein adinetan eman daitezke eta beti dago horiek konpontzeko aukera.



Adinaren arabera tratamendua lantzeko modua aldatzen da: umeekin joko modukoa izaten da, era ludiko batean lantzen joaten gara eta helduekin, berriz, beste modu batean tratatzen ditugu arazoak. Bestalde, badaude berez agertu beharko ez liratekeen eta normalizat hartzen ditugun hainbat arazo: adibidez, zahartzaroan askotan gertatzen da jatearekin batera eztula egitea. Hori ohikoa edo nabarmen gertatzen denean, badago konpontzeko modua: ariketa batzuk eginda irenseketa erabiltzen diren muskuluak indartzen dira eta, horrela, itotzea eragin dezakeen arazo saihestu daiteke. Dena dela, janaria kontrako eztairik behin joateak ez gaitu larritu behar.

- Zer da zure lanetik gehien gustatzen zaizuna?

Edozeinekin tratamendua amaitzean, pertsona horrek bere arazo gaitzitatearekin batera nolako segurtasuna hartu duen ikusteak benetan poztzen nau. Horrekin batera, norbait arazo batekin datorrenean diagnostikoarekin batera azalpen bat ematea oso garrantzitsua da niretzat. Irailaren 15az geroztik eta urtarrilaren 15era arte eskaintza bereziak egiteko asmoa daukat eta, elkarrizketa hau irakurri eta gero, jendearentzat logopedia ezagunagoa egitea espero dut.



Asko dira gure hortz-kliniketara etortzeko arrazoiak



20.000tik GORA PAZIENTE ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT

20 urteko esperientzia eta ikerketa gaur biharko
arreta jaso dezazun



www.innovadentalclinicas.com

ZURE INNOVADENTAL KLINIKA EIBARREN



Bista Eder, 19 - Bajo
20600 **Eibar**

Tel: **943 70 00 82**

ZURE INNOVADENTAL KLINIKA AZPEITIAN



José de Artetxe, 5
20730 **Azpeitia**

Tel: **943 02 59 55**